



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## **GASTEIZKO UDALAREN ERAKUNDE-ADIERAZPENA, 2020KO MAIATZAREN 17A LESBO- BI-GAY-TRANSFOBIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA**

Maiatzaren 17a LGTBIfobiaren kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, Gasteizko Udalak berriro ere erabateko arbuioa adierazi nahi du lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen aurka halakoa izategatik edo halakotzat jotzeagatik azaldutako jarrera, portaera edo adierazpen ororen aurrean; orobat, hiri libre eta askotarikoa, talde horren kontrako erasoei aurre egiten diena, eraikitze konpromisoa adierazten du. "Normaltasun" testuinguru batean LGTBI pertsonak aurrez aurre izan ohi dituzten estigmari eta parekotasun ezari COVID-19ak eragindako krisialdia dela eta areagotzen ari diren arazoak gehitu behar zaizkio, eskusio eta bazterkeria arriskua —zuzenekoa zein zeharkakoa— handitzen baitu. Izan ere, LGTBI pertsonaren bat aurretik baztertuta bazegoen haren familiak edo harekin bizi direnek haren sexu-orientazioa edo genero-identitatea onartzen ez zutelako, orain, alarma egoera dela kausa ezarri diren mugimendu murrizketek, etxean egon

## **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA- GASTEIZ CON MOTIVO DEL 17 DE MAYO DE 2020 , DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA LESBO- BI- GAY-TRANSFOBIA**

Un año más, con motivo del 17 de Mayo, Día Internacional contra la LGTBIfobia, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz quiere manifestar su rechazo absoluto a cualquier actitud, comportamiento o expresión contra las lesbianas, gais, trans, bisexuales e intersexuales por el hecho de serlo o por así considerarlo, y su compromiso con la construcción de una ciudad libre, diversa y que actúa frente a agresiones al colectivo.

El estigma y la desigualdad que enfrentan las personas LGTBI en un contexto de "normalidad" se suma a toda la problemática que está agudizando la crisis derivada del COVID19, aumentando el riesgo de exclusión y discriminación tanto directa como indirecta. Partiendo de una situación previa de discriminación y no reconocimiento de su orientación sexual o identidad de género por parte de sus familias o las personas con las que convivan, la restricción de movimiento, la obligación de permanecer en la vivienda y la situación de confinamiento



beharrak eta itxialdiak pertsona horrek ezinegon, estres, isolamendu eta bakardade egoerak bizitzea ekar dezake, edo egoera horiek larriagotzea, espazio horiek ezin baitituzte benetako etxegune segurutzat jo, baizik eta indarkeriazko egoerak gerta daitezkeen espaziotzat, erabateko ikusezintasunean babestuta.

Birusa hedatzea eragozteko prebentzio-neurrietako bat, isolamendu soziala, arrisku-faktorea da LGTBI pertsonen ongizate psikikoarentzat, kasu askotan haien sostengu sareak familia-etxeetatik kanpo daudelako, eta une honetan ezin dituztelako hurbil eduki itxialdia hobeto eraman ahal izateko. Iruditeria heteronormatiboa nagusi den gizarte batean, sexu eta genero aniztasunaren irudikapenak oso gutxi direlarik, komunitatea biziki garrantzitsua da talde baten parte izaten jarraitzeko, identifikaziorako eta bakardade sentimendua apurtzeko.

Gainera, jarduera gelditu izanaren ondorio ekonomiko eta sozialek neurri handiagoan eragingo diete pertsona ahulenei, baita arau soziala gehien apurtzen dutenei ere, eta horrek bereziki eragiten die LGTBI pertsonen hainbat esparrutan, hala nola enplegua, osasuna eta baliabideen eskuragarritasuna. Egoera horiek areago oker daitezke sexu-orientazioaz eta genero-identitateaz gain desberdintasunen beste iturri estruktural batzuk kontuan hartuz gero, zeinak LGTBI pertsonen ere jasaten baitituzte: kultura jatorria, adina, egoera sozioekonomikoa, dibertsitate funtzionala, etab.

derivadas del estado de alarma, pueden provocar y agravar que algunas personas LGTBI estén viviendo situaciones de angustia, estrés, aislamiento y soledad, ya que esos espacios no son considerados verdaderos hogares seguros, sino posibles espacios donde seguir viviendo escenas violentas amparadas por una total invisibilidad. El aislamiento social, medida preventiva para evitar la propagación del virus, es un factor de riesgo para su bienestar psíquico ya que en muchos casos las personas LGTBI cuentan con redes de apoyo fuera de los hogares familiares, las cuales en estos momentos no pueden tener cerca para sobrellevar mejor el confinamiento. En una sociedad donde el imaginario es cisheteronormativo y hay muy pocas representaciones de la diversidad sexo-genérica, la comunidad es una manera importantísima para seguir formando parte, para la identificación y romper con el sentimiento de soledad. Además, las consecuencias económicas y sociales derivadas de la paralización de la actividad, afectarán en mayor medida a las personas más vulnerables y que más rompan con la norma social, lo cual está afectando especialmente a las personas LGTBI en diferentes ámbitos como el empleo, la salud o el acceso a los recursos. Algunas de estas realidades empeoran si tenemos en cuenta la orientación sexual y la identidad de género en relación con otras fuentes estructurales de desigualdad, que también atraviesan a las personas LGTBI, como el origen cultural, la edad, situación socioeconómica, diversidad funcional, etc.



Ikusgune-LGTBIfobiaren kontrako behatokiak sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla eta izandako erasoei buruz aurrean landu duen txostenean (2019ko maiatzetik 2020ko apirilera arte), 25 gertakari jaso dira: 12 homofobiagatik; 3, lesbofobiagatik; 3, transfobiagatik; 3, genero barruko indarkeriagatik; 2, serofobiagatik, eta 2, LGTBIfobiagatik. Horiek alor ezberdinetan gertatu dira: lana, politika, erakundeak, familia, espazio publikoa, aisialdi espazioa, sare sozialak eta aplikazioak.

Hogeita bost gertakari horiek hazkunde nabarmena adierazten dute aurreko txostenen aldean, 2018-2019 txostenean 13 kasu jaso baitziren, eta 2017- 2018koan, 15 kasu. Ikusguneren arabera, hazkundearen arrazoia ez da gizartean LGTBI pertsonetako gorrotoa handitu izana, baizik eta erasotutako pertsonen gero eta beldur gutxiago izatea salatzeari, eta Behatokiak bere lana betetzeko gaitasun handiagoa izatea.

Gasteizko Udalak konpromiso hauek berresten ditu:

- LGTBI pertsonentzako informazio eta arreta baliabide oro ikusaraziko ditu.
- Arauzkoak ez diren sexualitateak, generoak eta desioak ikusarazten saiatuko da.
- Diskriminazio, estigmatizazio eta indarkeria LGTBIfobikoaren aurka borrokatuko du, bereziki, Berdintasunerako politketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko Agenda inplementatuz, plangintza-agiri horrek ekintza zehatzak jasotzen baititu, eta Ikusgune-Gasteizko LGTBIfobiaren kontrako behatokia sustatuz.

En su Informe de Incidencias por Orientación Sexual e Identidad de Género de este año, que abarca desde mayo de 2019, a abril de 2020, Ikusgune. Observatorio contra la LGTBIfobia de Vitoria-Gasteiz ha registrado 25 incidencias (12 casos por homofobia; 3, por lesbofobia; 3, por transfobia; 3, por violencia intragénero; 2, por serofobia; y 2, por LGTBIfobia), que han tenido lugar en distintos ámbitos: laboral, político, institucional, familiar, en el espacio público, de ocio y en las redes sociales y Apps.

Veinticinco incidencias supone un aumento significativo respecto a las registradas en informes anteriores (13 casos, en el Informe 2018-2019, y 15 casos, en el informe 2017-2018). Según Ikusgune, este incremento no responde tanto a un aumento del odio hacia las personas LGTBI por parte de la sociedad, sino a que las personas agredidas cada vez tienen menos miedo a denunciar y a la mayor capacidad del Observatorio a la hora de realizar su trabajo.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz reafirma su compromiso de:

- visibilizar todos los recursos informativos y de atención a disposición de las personas LGTBI,
- actuar para visibilizar las sexualidades, los géneros y los deseos no normativos
- combatir la discriminación, la estigmatización y la violencia LGTBIfóbica a través, fundamentalmente, de la implementación de la Agenda para incorporar la diversidad sexual y de género en las políticas de Igualdad, como documento de planificación que detalla acciones concretas, y el impulso



Azkenik, Ikusgune-Gasteizko  
LGTBIfobiaren kontrako behatokiaren  
kontaktuak gogorarazi nahi dizkizuegu,  
eraso LGTBIkobikorik jasan edo  
ikusten baduzue hara jotzerik izan  
dezazuen:

Telefono-zenbakia: [633 309 653](tel:633309653)  
- Posta elektronikoa:  
[info@ikusgune.eus](mailto:info@ikusgune.eus)  
- Web-orria: [www.ikusgune.eus](http://www.ikusgune.eus)

de Ikusgune- Observatorio contra la  
LGTBIfobia de Vitoria-Gasteiz.

Finalmente, queremos recordar los  
contactos de Ikusgune. Observatorio  
contra la LGTBIfobia de Vitoria-  
Gasteiz, a donde poder acudir en caso  
de haber sufrido una agresión  
LGTBIfóbica o de haberla presenciado:  
- Teléfono: [633 309 653](tel:633309653)  
- Correo electrónico: [info@ikusgune.eus](mailto:info@ikusgune.eus)  
- Página web: [www.ikusgune.eus](http://www.ikusgune.eus)